Gure kulturan oso sartua dago edari alkoholdunen kontsumoa, eta gure tradizio eta ospakizunekin lotura estua du. Baina kontsumo hau batzuetan arriskutsua izan daiteke; ikusi behar dugu zer kantitate edaten dugun eta zer maiztasunekin. Horregatik, garrantzitsua da informaturik egotea eta **JAKITEA** zure alkohol kontsumoa kaltegarria ote den zure osasunarentzat. Eta horretarako, test erraz bat prestatu dizugu.

Ondoko egoera hauetakoren batean baldin bazaude, ez da beharrezkoa testari erantzutea



GIDARI



BULARRA EMATEN



HAURDUN



KONTU HANDIKO LANETAN



ADIN TXIKIKOIA



BOTIKAK HARTZEN EDO GAIXORIK

*kasu hauetan, kontsumoa beti da arriskutsua*

Begiratu hiru urratsetan\* ea zure kontsumoa arriskutsua den

## 1. Zenbateko maiztasunez kontsumitzen duzu edari alkoholdunen bat?

- |                                      |                                       |
|--------------------------------------|---------------------------------------|
| (0) Inoiz ez                         | (3) Bi-lau alditan astean             |
| (1) Hilabetean behin edo gutxiagotan | (4) Astean lau alditan edo gehiagotan |
| (2) Bi-lau alditan hilabetean        |                                       |

PUNTUAK

## 2. Zenbat kontsumizio egiten dituzu egunean?

- |                  |                          |
|------------------|--------------------------|
| (0) Bat edo bi   | (3) Zazpitik bederatzira |
| (1) Hiru edo lau | (4) Hamar edo gehiago    |
| (2) Bost edo sei |                          |

PUNTUAK

## 3. Zenbateko maiztasunez hartzen dituzu 6 kontsumizio edo gehiago (6 kaña, 6 ardo edo 3 kopa baino gehiago) aldi bakar batean (gau batean, arratsalde batean, bazkari batean, kale-zurrutean, etab.)?

- |                                        |                            |
|----------------------------------------|----------------------------|
| (0) Inoiz ez                           | (3) Astero                 |
| (1) Hilabetean behin baino gutxiagotan | (4) Egunero edo ia egunero |
| (2) Hilabetero                         |                            |

PUNTUAK

ZURE KONTSUMOA EZ DA ARRISKUTSUA

Emakumeak

3 puntu edo gutxiago

Gizonak

4 puntu edo gutxiago

PUNTUAK GUZTIRA

ZURE KONTSUMOA ARRISKUTSUA IZAN DAITEKE

4 puntu edo gutxiago

5 puntu edo gutxiago

\*Test hau positiboa bada, berresten ahal duzu AUDIT izena duen beste test baten bitartez. Galdetu zure osasun etxean edo webgunean (Conoce tu consumo atalean). <http://www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es/consumo/home.htm>

## ZERI ESATEN ZAIO KONTSUMO ARRISKUTSUA?

Alkohol kontsumo arriskutsua esaten zaio etorkizunean osasun arazoak izateko aukera handitzen duenari (minbizia, hipertentsio arteriala, gibelego gaitzak, etab.)

Bestalde, edari alkoholdunak modu intentsiboan kontsumitzeak istripu edo borroka batean inplikaturik gertatzeko edo hirugarren pertsonak inplikatzeko aukera handitzen du. Horregatik, mota horretako kontsumoa ere arriskutsua da osasunarentzat.

*Erabakitzen baduzu pausoa aurrera eman nahi duzula,  
eta hobeki jan, laguntzen ahal dizugu aldatzen hasten*

## Elikadura eta osasuna oso lotuta daude: erabakia hartu, eta jan hobeki.

Nahiz eta azkarragoa eta erosoagoa izan inprobisatzea,  
«dagoenetik jan, eta kitto»..., **merezi du** gure eguneroko  
martxan **zenbait ideia praktiko** txertatzea:



### 1 Erosketa

**Prestatu** aste osorako menu bat.

Hori egitean, **begiratu zer elikagai mota hautatzen duzun** eta bakoitzetik zer kopuru diren gomendagarriak, baita nola banatzen dituzun ere.

**Egizu erosketako zerranda** menua oinarri hartuta.

**Irakurri etiketetan** elikagaien osuera nutrizionala.



### 2 Kozinatzea

**Gatz gutxirekin kozinatu.** Zure aho-sabaia ohituko da eta hobeki dastatuko dituzu elikagaiak. Espeziak erabil daitezke ordezko gisara, eta laguntzen ahal dizute plateren zaporea hobetzen.

**Ahal bada, erabili beti oliba olioia,** bai gordinean maneatzeko (entsaladak, marinatuak) bai kozinatzeko (lurrunean, irakinda, egosita, gisatuta, erreta, labekatuta, frijituta). Olio bera berriz erabiltzen baduzu, kontuan hartu kalitatea txartzen dela.



### 3 Otorduan

**Mantso jan,** elikagaiak ongi mastekatuz.

**Ez erabili gatzontzia** mahaian.

**Jan bakarrik ase arte;** ez da ona sobera jan izanaren sentsazioarekin gelditzea.

Ahal bada, **jan ezazu beste norbaitekin batera;** ona da lasaitzeko eta harreman sozialak estutzeko.

**Eta oroitu:** ura da edaririk hoberena.



**Otordu artean mokadutxoak jaten badituzu, hautatu jateko osasuntsuak;** hala nola, frutak, barazkiak edo fruitu lehorrak (hobe gordinak eta gatzik gabeak).

Elikadura hobetzeko moduari buruzko zalantzarik baldin baduzu,  
*osasun etxean laguntzen ahal dizugu*

Ikusi Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren **webgunea:**

**[www.estilosdevidasaludable.mssi.gov.es](http://www.estilosdevidasaludable.mssi.gov.es)**

edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren webgunea:

**[www.isp.navarra.es](http://www.isp.navarra.es)**

**Osasun kontuetan, dena ez dago zure esku, gizarteak ere badu erantzukizuna, baina zuk zerbait egin dezakezu beti.**

Laguntzarik behar baduzu, zure osasun etxean, udal zerbitzuetan eta zure zonako elkarteetan aurkituko duzu.

# Ongi jan, osasuntsu bizi

Elikadura osasuntsua



Elikadurak funtsezko garrantzia du gure osasunaren eta ongizatearen gainean.

Gero eta maizago aurkitzen ditugu oso osasuntsuak ez diren elikadura ohiturekin zerikusia duten osasun arazoak.

## Nola jan hobeki?

### Zergatik hobeki jan?

- ✓ Urte gehiago eta osasun onarekin bizitzeko.
- ✓ Gaurko zure elikatze modua erabakigarria delako zure etorkizuneko osasunari begira.



### ➔ Jan itzazu frutak eta barazkiak.

Hoberena: egunean gutxienez 5 ale kontsumitzea, ahal bada freskoak.



### ➔ Edan ura, edaririk osasuntsuena da.

Ahalik eta gehien mugatu edari azukredunak, eta ez sobera edan "dietetiko"ak edo azukrerik gabeak direnatak. Halakoak egunero edatea ez da batere ona.



### ➔ Erosi elikagai freskoak.

Ahal bada, ez elikagai aurrekozinaturik (plater prestaturik), ezta prozesaturik (adibidez, hamburgerrak, saltxitxak edo hesteki batzuk) eta opilgintza industrialekorik ere.



### ➔ Gatz gutxiagorekin jan.

Prozesatuak diren elikagai gutxiago kontsumitu, gatz asko baitute; mugatu, adibidez, saltsa edo prestatutako bizigarriak.



### ➔ Irakurri erosten dituzun produktuen etiketak.

Ahal dela, gantz hidrogenatuak edo partzialki hidrogenatuak dituztenak ez erosi; eta mugatu koko edo palma olioaren erabilera.

## Aztertu ongi zer hautatzen duzun.

Gure inguruan eskura izan ohi ditugun aukera errazetako franko ez dira beti osasuntsuenak izaten. Kasu eman, bereziki, azukre, gantz edo gatz kopuru handia duten elikagaiekin; murriztu horien kontsumoa.

### Azukre gehituak

Freskagarrietan, ontziraturako zukuetan, opilgintza industrialean eta prozesaturako zenbait produktutan (ketchupa edo moldeko ogia, kasu) izaten dira.

➔ Edalontzi bat freskagarri edo ontziraturako zuku (200 ml) = **4 koilaratxo** azukre



### Osasuntsuak ez diren gantzak

Opilgintza industrialean, aurrekozinaturietan edo aperitibo batzuetan (patata frijituetan, konparaziora) izaten dira.

➔ Batzuetan gantz kopuru **produktuaren 1/3** izatera iristen da!



### Gatza

Gogoan hartu elikagai freskoek, oro har, ez dutela gatzik izaten.

➔ Kontuz! Kontsumitzen dugun gatzaren 2/3 (**%70**) prozesaturako elikagaietan dago.





Egunero klase guztietako milaka  
eta milaka pertsonak

## LORTZEN DUTE ERRETZEARI UZTEA

Oroitu erretzeari uztea dela  
**zure osasunarengatik**  
egin dezakezun gauzarik hoberena

### Hona hemen zuretzako zenbait gomendio



#### Emazioz AUKERA bat zeure buruari.

➔ Lortzeko modu bakarra duzu: **sinetsi behar duzu gaintitu dezakezun erronka bat dela**. Utzi zalantzak bazterrean. Beste aldi batzuetan saiatu bazara ere, lehenago utzi eta berriz hasi bazara ere, egin egin dezakezu, ez eman etsia.



#### Finkatu DATA bat.

➔ Hasi baino lehen, aztertu egun horretako alde eta aurkako arrazoiak eta, batez ere, ez saiatu garai horretan zure bizitzan estres gehiegi baldin baduzu. Ez erabili behin eta berriz estresaren aitzakia, hain garrantzitsua den erabaki bat beti gerorako uzteko.



#### Prestatu PLAN bat.

➔ **Informazioa bildu lehenbiziko asteetako zailtasunei buruz** (zailtasun nagusia abstinentsia sindromea delakoa da), eta saiatu haiei aurrea hartzen. Aurreikus itzazu zailtasunak gaintitzeko ahalik eta irtenbide gehienak. Badira erabil daitezkeen botiken bidezko tratamendu eraginkorrak, erretzeari uzten lagundu eta abstinentsia sindromearen sintomak murrizten dituztenak.



#### Zalantzarik izanez gero, eskatu LAGUNTZA.

➔ **Osasun etxean, lagunei, ahaideei; edo bilatu bestelako baliabideak**. Eta eskatu laguntza, behar adina aldiz.

### Erabakia hartu, eta utzi erretzeari

hobeki sentituko zara, zure osasuna eta zure familiarena hobetuko dira,  
ez duzu tabakoarekiko mendekotasunik izanen eta zure ekonomiak eskertuko dizu

Ikusi Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta  
Berdintasuneko Ministerioaren **webgunea**:  
**[www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es](http://www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es)**

edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta  
Lan Osasunaren Institutuaren webgunea:  
**[www.isp.navarra.es](http://www.isp.navarra.es)**

Osasun kontuetan,  
dena ez dago zure esku,  
gizarteak ere badu  
erantzukizuna,  
baina zuk zenbait  
egin dezakezu beti.

Laguntzarik behar baduzu,  
zure osasun etxean, udal  
zerbitzuetan eta zure zonako  
elkarteetan aurkituko duzu.

# Erabakia hartu, eta **utzi erretzeari**



Dударик gabe, jakinen duzu zein arriskutsua den tabakoa zure osasunarentzat. Ez dugu horri buruz deus gehiago esan nahi.

Guk argibide batzuk eman nahi dizkizugu erretzeari uzteko prozesua **nola hasi** erakusteko

**Segur aski gustu berezia sentituko duzu egunean erretzen dituzun zigarroetako batzuekin; ordea, egunero hortxe aurkituko dituzu pare-parean...**

- ➔ **tabakoarengatik sortzen diren** eritasunak
- ➔ tabako paketeetan heldu diren **mezuak**
- ➔ osasun arloko profesionalen **gomendioak** edo
- ➔ zure lagun eta adiskideak pairatzen ari diren **gaixotasunak**.

Horregatik, baliteke zu ere **ados egotea** erretzaile askok behin eta berriz esaten duten horrekin:

## «gustura utziko nioke erretzeari»

**Erretzeari uztea ez da erraza, baina POSIBLE DA.**

Garrantzitsua da aldeaz aurretik prestatzea. Erretzeari utzi nahi badiozu, aurre egin beharko diezu **funtsezko 3 alderdiri**.



**Nikotinen  
adikzioarako  
ahalmena**

**1** Zigarroari ematen diogun xurgaldi bakoitzean, substantzia kimiko horrek eragina du gure burmuinaren baitan, eta berak sorrarazten digu mendekotasun fisikoa.



**Tabakoarekiko  
harreman  
psikologikoa**

**2** Erretzaileen eta tabakoaren arteko harremanak lotura estua du gure emozio guztiekin: tristura edo alaitasun uneetan, ongi sentitzen garenean edo gaizki gaudenean, estres egoeretan, etab. Egiten ditugun keinurik arruntenak edo eguneroko ohiturak ere lotuak daude tabakoa erretzearekin.



**Alderdi  
soziala**

**3** Gure gizarte harremanetan sortzen da askotan tabakoaren kontsumoa; gure inguruneak eragina du.

**Zailtasun horiek ez dira gaindiezinak**

# Ongi sentitzea zure esku ere badadago

## KONEKTATU



### ...ZEURE BURUAREKIN

- ▶ **Kontzientea izan** bizitzen ari zarenaz, une bakoitzean gertatzen ari denaz, zeure sentipen eta emozioez. Horrek lagunduko dizu inguratzen zaituenaz gehiago gozatzen eta zeure burua hobeki ezagutzen.
- ▶ **Goza ezazu** une bakoitza eta balora itzazu bizitzak ematen dizkigun gauza txiki guztiak.
- ▶ **Zeure burua maitatu eta den bezalakoa onartu**, tolerantziatz, umorez eta maitasun handiz.
- ▶ Ez galdu **gauza berriak ikasteko gogoia**; zure autoestimua eta zeure buruarenganako konfiantza handituko dira.
- ▶ **Landu zure emozioak**. Egoeraren batek atsekabetzen bazaitu, saia zaitez nondik sortzen den identifikatzen eta zure antsietatea pizten duten pentsamenduak kudeatzen. Alda ezazu ahal duzuna, eta ezin baduzu, proba ezazu zer gertatzen den beste ikuspuntu batetik begiratzu gero. Saiatu erlatibizatzen.
- ▶ **Har ezazu denbora pixka bat** egunaren amaieran gertatu zaizun guztiari buruz pentsatzeko, eta saiatu beti zerbait ona ateratzen.



### ...BESTEEKIN

- ▶ **Harremanak izan** inguruan dituzunekin: familia, adiskideak, bizilagunak edo lankideak. Emozioak, esperientziak eta sentipenak trukatzeko aukera izanen duzu.
- ▶ **Atsegina izan**. Keinu txiki batzuk egitea nahikoa da: irribarrea agertzea edo eskerrak ematea.
- ▶ **Sortu edo indartu sare sozialak**. Besteei laguntzea, besteak babestea, besteekin lan egitea, helburu komun baten atzetik, ona da gure ongizate emozionalarentzat, eta aldi berean sare sozialak sortu edo indartzeko balio du.
- ▶ **Adierazi zure emozio positiboak**; horrek are gehiago berretzen ahal ditu.
- ▶ **Partekatu ezazu** sentitzen duzuna. Gertatzen zaizuna kontatzeak lagunduko dizu arazoei hobeki aurre egiten. Eskatu laguntza zure konfiantzako pertsoneri.
- ▶ **Bilatu babesa** zure inguruko jendearen baitan. Utzi besteei zuri laguntzen, eta gogoan izan zu ere hobeki sentitzen zarela zure ahaideei eta adiskideei laguntzen diezunean.



### ...INGURU-NEAREKIN

- ▶ **Goza zaitez inguruneaz**, gelditu eta begiratu inguruan duzunari, eta ikasi hor duzuna baloratzen.
- ▶ **Berdeguneeak** eta naturak gure aldatzea hobetzen dute. Gainera, aire zabalean egiten diren jarduerak mesede egiten diote gure ongizate emozionalari.
- ▶ Ezagutu **zure auzoa**. Bilatu zer baliabide eta ekitaldi dituzun hurbil, zure eskura, hobeki sentiarazten ahal zaituztenak: parkeak, kultur zentroak, eguneko zentroak, liburutegiak, kiroldegiak, elkarateak, etab.

Nahiz eta ezin ditugun alderdi guztiak kontrolatu, baikorrak izaten saiatzen bagara eta gertatzen zaizkigun gauza onei erreparatzen badiegu, hobeki sentituko gara eta gure osasunarentzat mesedegarria izanen da.

**Behar baduzu, zure osasun etxean laguntzeko prest izanen gaituzu**


Ikusi Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren **webgunea**:  
[www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es](http://www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es)

edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren webgunea:  
[www.isp.navarra.es](http://www.isp.navarra.es)

**Osasun kontuetan, dena ez dago zure esku, gizarteak ere badu erantzukizuna, baina zuk zerbait egin dezakezu beti.**

Laguntzarik behar baduzu, zure osasun etxean, udal zerbitzuetan eta zure zonako elkarteetan aurkituko duzu.

# Senti zaitez hobeki eta **konektatu**



Ongizate emozionalak berak besterik gabe laguntzen digu **osasuna hobetzen**. Gainera, **ongi sentitzeak** animatu egiten gaitu bizimodu osasuntsuagoak hartzera.

## Emozioek eragina dute zure bizimoduaren gainean



Ongi sentitzen zarenean, zeure burua zaintzeko gogo handiagoa duzu, ariketa fisikoa egiteko animatuago zaude edo gutxiago kostatzen zaizu osasuntsu elikatzea. Alderantziz ere, zure bizimoduan sartua baduzu ariketa fisikoa egitea, ongi atseden hartzea edo osasuntsu elikatzea, areagotu egiten dira zure emozio positiboak.


Emozionalki ongi egoteak laguntzen digu gizartean funtzionatzen eta eguneroko bizitzaren eskaerei erantzuten. Zenbat eta hobeki kudeatu zure emozioak, orduan eta gaitasun handiagoa izanen duzu bizitzaz gozatzeko, estresari aurre egiteko eta zeure lehenetsun garrantzitsuenetan zentratzeko.

## Zer dakigu emozioei buruz?

Emozioak sentitzen ditugu, gure inguruan edo gure baitan gertatzen den zerbaiten aurrean erantzuten dugunean. **Emozio guztiak beharrezkoak dira, garrantzitsua da haiek sentitzea eta adieraztea.** Emozioak kudeatzeko manierak eragina izanen du gure pentsatzeko, jarduteko eta besteekin harremanak izateko moduaren gainean.

### Emozio positiboak

gure ongizatearen parte dira, harremanak egiten eta proiektuak prestatzen laguntzen digute, errendimendua errazten dute, estresa kudeatzeko mesede dira eta harreman sozialak eta osasuna hobetzen dituzte. **Areagotu behar ditugu**, gure sormena handitzen dutelako eta aurrera egiten laguntzen digutelako.



### Emozio negatiboak

laguntzen digute oreka berreskuratzen, galerak eta aldaketak onartzen, erantzuten, gure burua babesten, arazo zehatzentzako konponbideak aurkitzen... Garrantzitsua da mota honetako emozioak **onartzea eta adieraztea** baina ez da komeni **haiei heltzea** denbora gehiegi, jada guretzat mesedegarri ez badira.

Zure emozioak identifikatu, ezagutu eta onartzen badituzu, nahiz eta negatiboak izan, aiseago lortuko duzu haiek eraginkortasunez erabiltzea eta kudeatzea.

**Irauli zure pentsamoldea!**

# Zenbat ariketa fisiko egin beharko genuke ondorio mesedegarria jasotzeko?

Helduentzat, hauek dira ariketa fisikoak egiteko gomendioak

Bana ezazu ariketa fisikoak astean zehar  
Adibidez, 30 minutuko aktibitate moderatua astean 5 aldiz edo gehiagotan.



150  
minutu/astean  
aktibitate  
moderatua

EDO



75  
minutu/astean  
gogor emanaz

EDO



tartekatzea  
aktibitate  
moderatua  
eta gogorra

**Astean 2 egunez** egin itzazu giharrak sendotzeko eta **hezurdura** indartzeko ariketak eta **malgutasuna** hobetzekoak

**65 urte baino gehiago badituzu**, egin **astean 3 egunez** gutxienez giharrak sendotzeko eta **oreka** hobetzeko ariketak



## Aktibitate moderatua

Bero sentrazioa handitzen da eta izerdi pixka bat ateratzen hasten da. Bihotzaren erritmoa ere handitzen da, baina arnasarena ere, baina oraindik hitz egin daiteke airea falta dela sentitu gabe. Adibidez, oinez pauso arinean ibilita.



## Aktibitate gogorra

Bero sentrazioa handitzen da eta izerdi gehiago ateratzen da. Bihotzaren erritmoa are gehiago handitzen da eta kostatzen da arnasa hartzea; zaila da hitz egitea aktibitatean ari bitartean. Adibidez, laster egitea edo bizikletan ibiltzea pedalei gogor eraginez.



## Tartekatzea aktibitate moderatua eta gogorra

Aktibitate gogorrek 1 minutu batek gutxi gora behera aktibitate moderatuko 2 minutuk adina balio du.



➔ **Egonean ematen dituzun egonaldi luzeak laburtu; ez daitezela 2 ordutik gorakoak izan;** horren ordez, ordu bat edo bitik behin ariketa tarte bat sartu, luzaketa saio labur bat edo ibilaldi txiki bat eginez. **Hautatu garraibide aktiboa:** ibili oinez edo bizikletan ahal duzun guztietan.



➔ **Muga ezazu pantailen aurreko denbora** (TB, ordenagailua, telefono mugikorra, tableta, bideojokoak, etab.)

## Zure txanda da! Egizu zure osasunaren aldeko lehen urratsa!

Ikusi Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren **webgunea:**

[www.estilosdevidasaludable.mssi.gov.es](http://www.estilosdevidasaludable.mssi.gov.es)

edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren webgunea:

[www.isp.navarra.es](http://www.isp.navarra.es)

Osasun kontuetan, dena ez dago zure esku, **gizarteak ere badu erantzukizuna**, baina zuk zerbait egin dezakezu beti.

Laguntzarik behar baduzu, zure osasun etxean, udal zerbitzuetan eta zure zonako elkarteetan aurkituko duzu.



# Egizu osasunaren aldeko lehen urratsa!

Ariketa fisikoa



Pertsona aktiboa izatea oso garrantzitsua da zure bizitza luzatzeko eta bizi kalitatea hobetzeko. Gomendio batzuk emanen dizkizugu zure bizimodua aldatzeko, aktiboagoa izateko.



*Badituzu 10 minutu?*

Biderkatu zure osasuna

$10 \times 3 \times 5 = 150$

min aldi egun min/ast

10 minutu hartzen badituzu 3 aldiz egunean gutxienez ere 5 egunez, ez duzu arazorik izanen gure gomendioak betetzeko. Erraza; ez da hala?

Pertsona helduek osasuna hobetzeko **gutxieneko gomendioak** hauek dira: **150 minutu astean** ariketa fisiko moderatua eginez; hori lor daiteke denbora tarte txikiak batuz, baina gutxienez 10 minutukoa bakoitza.

**Osasunarentzako onura batzuk:**

- ✓ Hobeki sentituko zara, fisikoki eta emozionalki.
- ✓ Lagunduko dizu prebentzio lana egiten, eritasun kronikorik agertu ez dadin: bihotzeko eritasunak, obesitatea, diabetesa eta tentsio edo kolesterol altua; eta halakoren bat baldin baduzu, hobetzen ahalko duzu haien bilakaera.

**Eta DAGOENeko EGITEN BADUZU gomendatutakoa:**

Segi horrela edo are gehiago mugitu!

**Eta bestela... Nola izan naiteke aktiboagoa?**



## ➔ Hasi

EZ bazara asko mugitzen, garrantzitsuena hastea da. Ariketa fisiko pixka bat egitea deus ere ez egitea baino hobea da. Zure osasun egoera edozein izanda ere, mugitzen haste hutsarekin mesede eginen diozu zeure buruari; baina are gehiago lortuko duzu gomendioak betez gero. Izan zaitzez aktiboa, ahal duzun neurrian eta, gehienbat, egizu ariketa modu progresiboan. Zenbat eta gehiago, hobe!



## ➔ Aurkitu arrazoi bat

Pentsatu zerk animatzen ahal zaituen hastera. Aztertu pertsona aktiboagoa izateak dakartzan onuren zerrenda, eta eman lehenbiziko pausoa!



## ➔ Egokitu zure bizimodura

Txerta ezazu ariketa fisikoa zure eguneroko bizimoduan. Zoaz oinez mandatuak egitera edo eskaileretako bidetik igo, igogailua hartu beharrean. Saiatu ez egoten 2 ordu baino gehiago eserita; zutitu eta ibili pixka bat edo egin luzaketa ariketa batzuk.



## ➔ Mugitu gehiago eta sorraraz ezazu mugimendua inguruan

Batzuetan, aiseago motibatuko zara ariketa fisiko beste lagun batzuekin batera egiten baduzu. Animatu zure adiskideak, zure bikotekidea, zure familia... Gainera, horrela lortuko duzu beste batzuk ere aktiboak izatea. Zenbat eta ariketa eta jende gehiago, hobe!



## ➔ Alda ezazu batetik bestera joateko zure modua

Ahal duzun guztietan, joan oinez edo bizikletan, autoan joan ordez; erabili garraio publikoa eta jaits zaitzez geltoki bat lehenago. Gainera, horrela eginez, ingurumena zainduko duzu.



## ➔ Bilatu informazioa eta ikusi zer baliabide eta jarduera dagoen zure inguruan

Parkeak, oinez edo bizikletan egiteko ibilbideak, ibilaldi antolatutak, kiroldegiak, adinekoentzako zentroak, kultur zentroak, kirol elkarteak, kirol federazioak edo aisialdiko beste edozein jarduera.



## Imajinatu lortu duzula zure helburua.

Idatzi hemen nola sentitzen zaren zure egoera berrian

.....  
.....  
.....

## Ekin lanari! *Idatzi zure plana*



### 1 Idatzi hemen zure helburu zehatza

.....  
.....



### 2 Jarri data bat zeure buruari

Hasiera data

urtea / hilabetea / eguna

Helburua lortuko duzun eguna

urtea / hilabetea / eguna



### 3 Zer egin behar duzu egunero edo astero zeure buruari proposatu diozun aldaketa lortzeko?

.....  
.....

Jar itzazu eskuorri hau eta zure plana begien bistan;  
horrela, ikusten dituzun aldiro oroituko zara

*eta kontatu zure asmoa familiakoei eta lagunei  
aldaketa lortzen lagundu zaitzaten*

Ikusi Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren **webgunea:**

**[www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es](http://www.estilosdevidasaludable.mssi.gob.es)**

edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren webgunea:

**[www.isp.navarra.es](http://www.isp.navarra.es)**

Osasun kontuetan,  
dena ez dago zure esku,  
gizarteak ere badu  
erantzukizuna,  
baina zuk zerbait  
egin dezakezu beti.

Laguntzarik behar baduzu,  
zure osasun etxean, udal  
zerbitzuetan eta zure zonako  
elkartetan aurkituko duzu.



# Gaur

## egun ona izan daiteke... bizimodu osasuntsuago bat hasteko

Horretarako, prest egon behar duzu aldaketa batzuk egiteko.  
Hona gure proposamena: **hasi egiten zuretzat aldatzeko errazena dena.**  
Lehenik, saiatu helburu txiki batzuekin eta, haiek lortu ondotik,  
indar handiagoa izanen duzu erronka berriei aurre egiteko.

### Bizimodu osasuntsuagoa izateko

#### *Zer aldatu nahi duzu?*

➔ **Erretzeari utzi?, elikadura osasuntsuagoa?, gutxiago edan?, gehiago mugitu?, lasaiago bizi?, beste zerbait? Lehenetsuna emaitza lehenik hobetu nahi zenukeenari**

.....

.....

.....

➔ **Zergatik aldatu nahi duzu?**  
Gaur egungo zure bizimoduko zerekin ez zaude pozik?  
Zer espero duzu lortzea hori aldatzen baduzu?

.....

.....

.....

➔ **Nola sentitzen zara gaur egungo zure bizimoduarekin?**  
Pertsona batzuk haserre edo frustraturik sentitzen dira ez direlako behar adina zaintzen, beste batzuk ez dira ausartzen beren bizimoduan aldaketak egitera, beste batzuek sentitzen dute norbaiten laguntza behar dutela; eta zu, nola sentitzen zara?

.....

.....

.....

➔ **Zenbateko garrantzia du zure bizitzan lortu nahi duzun aldaketak?**  
0 inolako garrantzirik ez/10 garrantzirik handiena

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

➔ **Zehaztu dezakezu zer lortu nahi duzun? Idatzi helburu zehatz bat**

Adibidez: oinez ibiltzea 30 minutuz astean 5 egunez, egunean 3 fruta ale jatea, ez erretzea, lasaitzeko ariketak astean behin egitea, neure buruarentzat 30 minutu hartzea egunero...

.....

.....

.....

➔ **Zer egin behar duzu hori lortzeko?**

.....

.....

.....

➔ **Zer zailtasun agertzen ahal zaizu bidean?**

.....

.....

.....

➔ **Nola egin behar diezu aurre zailtasun horiei eta nork lagundu zaitzake?**

.....

.....

.....

➔ **Helburua lortzeko zenbateko konfiantza edo segurtasuna duzu?**  
0 inolako konfiantzarik ez/10 konfiantzarik handiena

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

# Osasuna!!

